

**Martxan da
'Xua gurasoekin
etxera' herri ekimena**

noaua

**Erasorik gabeko festa gunea
lortzeko gida osatu dute**

San Joan jaiak, iruditan

A photograph of a cyclist, Garazi Artola, posing in front of a road sign. The sign is white with a red border and features the text 'ZEGAMA' in large black letters, with 'EUSKAL HERRIA' and a small crest below it. The cyclist is wearing a green and black cycling outfit and a colorful headband, and is making a peace sign with both hands. The background shows a road, greenery, and a building with a tiled roof.

ZEGAMA



EUSKAL HERRIA

**Garazi Artola: “Mendi lasterketa luzeetan
buruak izugarrizko garrantzia du”**



SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIKI
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

Sagardotegia

Hotela

943 36 67 10







info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com



**Barbakoak
ikatza, eta
tresneria!**

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude

Albiste iruditan

Jaien bezperan agertu da maskota

Aste honetako aldizkaria inprentara bidaltzeaz gainera iritsi da abisua NOAUA!ko erredakziora. “Jaietako maskota jartzen hasi dira”. Sutegira hurbildu eta hantxe topatu dugu argazkiko buruhandia, giltza bat lepotik zintzilik duela. Beste osagai batzuk ere izango ditu aurtengo maskotak, argazki honetan ageri ez direnak. Frontoi aldera hurbildu behar duzue Jokin Eizagirreraren artelana oso osorik kontenplatu ahal izateko.

Xua gogoan

Ondo begiratu gero, maskotak kate bat du zintzilik lepoan. Eta katearen muturrean giltza bat ageri da. “Gurasoekiko maitasun lotura eta askatasunerako giltza irudikatzen du. Azken batean Xua-ren egoera islatzen du”, Xua gurasoekin etxera herri ekimeneko kideek aditzera eman digutenez (informazio osatuagoa 9. orrialdean topatuko duzue).



Argazkian, jaietako maskotaren zati bat. Buruhandia Sutegiko paretean eskegirik topatuko duzue.

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga eskualdako presoen alaba da Xua. Urtarrilean 3 urte beteko ditu. Adin horretan, espe-

txetik irten eta gurasoengandik urrundu behar du. Umea eta familia babesteko eratu da Xua gurasoekin etxera ekimena.

Laburrean

1955ean jaiotako kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute bere eguna 1955ean jaiotakoek. “Egun pasa egin dugu, Gezaltza-Añanako gatz arana, Nerbioiko ur jauzia eta Urduña ikustatuz. Jakinarenean gainez izateko. Izena irailan eman behar da”.

1979an jaiotako kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa bazara eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Hurrengo odol ematea, uztailearen 8an

Jaiak tarteko, bi hilabete behin izaten den odol emate eguna uztaileko lehen astelehenean ez, bigarrenorako finkatu du Odol Emaileen Elkarteak; uztailearen 8rako, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Badakite, baina bost axola

Gaur, bihar etzitan berri gertatuko denez aipatzeak merezi duelakoan nago. Egunerokoak baitira euskaldunok pairatu behar izaten ditugun hizkuntza eskubide urraketak. Ere mu anitzetan gertatzen da. 72 hautatuetakoa bat izan nintzen maiatzaren 26ko hauteskunde egunean. Mahaietako batean egotea egokitu zitzaidan.

Antza, beste ehunka (edo gehiago) lagun artean-hala esan baitzidaten Donostialdeko hauteskunde batzordera deitu nuenean-alegazioa aurkeztu nuen, egun horretan lan egin beharra nuelako. Ezezkia espero nuen, baina herritar gisa dagokidan eskubidea baliatuz, alegazioa ustez nahiko argi azaldu nien, eta euskaraz. Maiatzaren 9an bidali nien, erantzuna, jasotzea ere espero ez nuenean, hilaren 20an jaso nuen. Hauteskundeetarako 6 egun baino falta ez zirenean. Ezezkia, erdaraz heldu zen. Interesdunak, alegia nik, ez omen dut inolako ogibiderik informazio orokorreko hedabide batean (zer da ba

NOAUA!?) eta maiatzaren 26an egin beharrekoak, Usurbilgo udal hauteskunde berri emateak alegia ez zuela mahaian ez egoteko bezainbesteko berebiziko garrantzirik.

Sutan jarri ninduen; ezezkoak ez. Bigarren aldia zen mahai batean lehendakari izatea egokitu, alegazioa aurkeztu eta ezezko borobila jasotzen nuena. Sutan jarri ninduen, mezua eta argudioak izan diren. Euskaraz bidalitakoa erdaraz jaso. Eta ogibideaz gezurra esan. To. Erantzuna berraztertzeke eskatu nien, eta erantzuna euskaraz berbidaltzeke. Frantsesez bidali izan banie italieraz erantzuteak zentzurik ez baitu ezta? Euskararekin berdin. Susmoa banuen gainera, hainbeste alegazio artean, nirea ez zutela irakurriko, edo okerragoa zena, erdaraz erantzun zidatenez, ulertzeko gaitasunik ere ba ote zuten zalantza nuen. Handik egun gutxitara bigarren erantzuna. Emaila oraingoan bai, euskaraz. Agian, tartean haserrea adierazteko egin nuen telefono deiagatik. "Igandean mahaira aurkezten ez banaiz

zer gertatuko zait?" galdetu nien. Erantzuna argia; hauteskunde delitutzat joko litzateke. Gutxienez isuna eta okerrenera jota espetxe zigorra.

"Eta hauteskunde batzorde bat gezurretan aritzeak zer ondorio ditu?" galdetu nien. Isiltasuna telefonoz bestalde. Buelta nadin, kexaren erantzunera. Honatx erantzuna: "EAE-ren Estatutuko 6.1 artikulua arabera, euskara zein gaztelera ofizialak dira Euskadin, eta bertako herritarrek eskubidea dute bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko. Bestetik, Euskadiko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea osatzen duten Epai-le eta Magistratuei hizkuntza eskakizun zehatzik eskatzen ez zaienez, euren ebazpenak lurraldean ofizialak diren hizkuntzetatik edozeinetan eman ditzakete, gaztelaniaz zein euskaraz". Hemen tranpa, bai edozein hizkuntzetan, baina zergatik ez orduan nik hala bidali badiet euskaraz? Hemen xehetasunak: "dena dela, interesatuak bere aitzakiaren ebazpena euskaraz izapidetzea nahi bazuen, eskatzea besterik ez zuen eta bere es-

kaera kontuan hartuko zen, epaitegiei lotutako Itzulpen Zerbitzuen bidez". Alegia, nik euskaraz aurkeztutako alegazioa euskaraz tratatua eta erantzuna izateko eskatu egin behar nuen gainera, "itzulpenen sailean". Harra-pazank! Erantzun lotsagarria ez da hor amaitzen. "Kasu honetan ez zen eskaera hori egin, eta horregatik ez zen euskarara itzultzea erabaki. Gainera, aitzakien inguruko ebazpenetarako epea laburra da eta interesdunari ahalik eta azkarren jakinaraztea garrantzitsua da". Bai maiatzaren 9an aurkeztu alegazioa, eta 20an jaso erantzuna. To azkartasuna! Begi bistakoa egoera; egunerokoa. Euskara itzulpen sailerako dute. Eta larriena dena, inkontzienteki eskubidetzat jotzen dute EAEk bi hizkuntza ofizial izan arren, bat, betikoa, gurea, euskara baztertu eta gutxiestea. Eta hori era berean eskubide urraketa bat da, legea haustea, ilegala. Eta Justiziak badaki. Eta lotsa izpirik gabe agertzen dute gainera. Justiziarik ez antza euskaldunontzat.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Udako ordutegiak martxan

Euskotren

Euskotrenek ekainaren 24tik irailaren 8ra udako ordutegia izango du indarrean. Aipatzeakoa asteburuetan ordu erdiro izango dela tren zerbitzua.

Bus taxia

Uztailaren 1etik aurrera eta irailera arte:

■ Uztailaren goizez, astelehene-tik ostiralera 07:30-08:30, 10:30-11:30 eta 13:00-14:00 artean eskainiko da zerbitzua.

■ Arratsalde, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean ez da

zerbitzurik izango. Ezta uztailaren 2an, 25ean, 31n eta abuztuan. Irailaren 2tik aurrera, ohiko ordutegira itzuliko da bus taxi zerbitzua.

KzGunea

Uztailaren goizez, 9:00-13:00 artean irekiko dute. Uztailaren 2an, 25, 26 eta 31n eta uztailaren 30etik irailaren 1era itxita.

Oiaro Kirolegia

Itxita: uztailaren 2an, abuztuan 5etik 18ra.

Arratsalde itxita igande eta jai

egunotan: uztailak 25 eta 31.

Uztaila eta abuztua:

Lan egunetan: 7:00-13:00/-17:00-20:15 (igerilekuaren itxiera: 12:45/20:00).

Larunbatetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera: 12:45).

Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera: 12:45).

Atalluko Garbigunea

■ Uztailaren 15era arte: astelehene-tik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00 artean; larunbatetan, 09:00-13:00 artean

irekiko dute.

■ Uztailaren 15etik irailaren 15era: astelehene-tik ostiralera, 10:15-14:00 artean eta larunbatetan, 09:00-13:30 artean.

Sutegi udal liburutegia

■ Irailaren 9ra bitarte, astelehene-tik ostiralera, 9:30-14:00. Uztailak 1 eta 2 itxita.

■ Uztailaren 8an, 15ean, 22an eta 29an goiz eta arratsaldez zabalduko dute; 9:30-14:00/17:00-19:00.

■ Urrira arte itxita egongo da larunbatetan.

Eratorik gabeko festa gunea izateko gida eta protokoloa landu dute

Erasorik gabeko jai gunea izan eta jai eredu parekideen aldeko lanketa bideratu da azken aldian Usurbilen. Udalak eta herritarrak bildu dituen prozesu horretatik sortu dira jaiotarako gida eta protokoloa. Gida, jai egitarauarekin egin bezala, ostegun honetan banatzekoak dira etxetxe.

Udaleko Parekidetasun Sailetik azken urteotan festei begira egindako lanketan sakontzeko apustua gauzatu dute, eremu honetan diharduen Sortzen elkartearen laguntzarekin. Aurreko urteetan Beldur Barik kanpainarekin bat egin zuten, aurten ordea “zerbait landuagoa nahi genuen”.

Gidaren ideia Sortzenekoen eskutik jaso zuten. Helburu argi batekin: “jaietan zerbait gertatuta zer egin, nola jokatu, lagundu jakiteko”. Eta argi zuten Udalak, herrian herritarrekin landu behar zutela.

Prozesuan, txosna batzordeko zein gazte mugimenduko kideek parte hartu dute. Urtarrilaz geroztik, bai txosna batzordeak eta Aztarririk jaiak eta harremanen gaiari heldu eta landu dute ekintza desberdinen bidez. “Gure urte honetako prozesuaren emaitza izan da”, gida eta protokoloa. Tresna hauen lanketan, “gogo askorekin parte hartu dugu”, adierazi digute.

NOAUA!ri adierazi diotenez, “eraso bat zer den lantzetik hasi ginen”. Norbere ikuspegi subjektiboa agerian geratu



Aurreko urteetan Beldur Barik kanpainarekin bat egin zuten, aurten ordea “zerbait landuagoa nahi genuen”.

zen. Argi dutena da halere, “erasoak aurpegi asko dituzte. Ohituak gaude ateratzen garen bakoitzean halakoak jasatera. Orduan horiei aurre egitea denon ardura da”.

“Erasoei merezi duten garrantzia ematea”

Dagoeneko erronka bat bete dutela diote; gaia plaza publikora ateratzea eta “jai giroan jasotzen ditugun erasoei merezi duten garrantzia edo duten larritasuna aitortzea eta erantzun bat ematea”. Eta gaia ikusarazita, jaiak lasaiago bizi ahal izateko bidean kokatzea, oraindik orain, “emakumeek ezin baitute festez nahi duten bezala gozatu. Beraz bada bada gizon eta emakumeen arteko bereizketa bat, emakume izate hutsagatik, non ez dugun eskubide bera festak bakoitzak nahi dituen eran bizitzeko”. Gida honekin, elkarrizketatuen ustez, “eskubide galera hori plaza publikora ateratzen dugu”.

Gai honek dituen ertz ezberdinei heltzen dio gidaren edukia. “Zer den sexu eraso bat edo zer den indarkeria ma-

txista”. Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietaren esanetan fokua zabaltzen du. “Fokua ez du soilik emakumeengan jartzten, baita LGBTIQ+ kolektiboko kideek jasaten dituzten erasoak matxistatzen jotzen dira ere”. Eta baiezkaren eta ezezkoaren arteko muga argia marrazten du. “Gidak oso ondo finkatzen du bai soilik bai dela, hori ez den gainerako guztia, ez dela”, alkateak nabarmentzen duenez.

Eta erantzukizunaren fokua noski, mutil edo gizonengan jartzten du. Aukera ematen du besteak beste, ez bakarrik Usurbilgo jaiei begira, urtean zehar gai hau lantzeko. Bai etxean eta guztiok partekatzen dugun gune publikoetan, jendartean. “Etxetik hasi behar dugu lanketa honekin”, adierazi digute. Gurasoek parrandara joan aurretik jaietan nola jokatu, seme-alabei helarazten dizkieten mezu ezberdin horietatik. “Gurasoei ere gaia nola landu pistak ematen dizkiete”. Hitz egiteko hamaika aitzakia eskaintzen ditu gidak. “Festei begira lantzeko egokia da, bai-

na urteko beste edozein uneetan etxe guztietan egon behar lukeen elkarrizketarako eduki nahikoa badu”, adierazi digute.

“Abiapuntu bat da eta lan marko bat eskaintzen digu. Lan marko horren gainean lanean jarraitu beharko dugu”, gaineratu du alkateak. Abiatu berri duten legealdian “landu nahi genukeen ildo bat da” inplikatuak dauden aktore guztiekin, neska, mutil, guraso eta abarrekin. Aurrera begira, “errebisio bat egin beharko dugu zer jai eredu dugun, emakumeen parte hartzea bermatzen ote duten...”.

Festetan:

Gida landu duen talde berak, erasoan aurrean erantzun bat emateko protokoloa ere prestatu du jaiotarako, iaz esaterako Aginagako Jai Batzordeak egin bezala. Egunotan tabernari eta txosnetako kideei aurkeztuko zaie, erasorik gertatuko balitz martxan jarri dezaten. Herrian ere, jai giroan halakoak gertatzen direla ikusarazi eta jabetzeko, besteak beste, ondoko ekimenok bideratuko dituzte festa hauetan:

■ Besoko moreak: hainbat lagunek jai eremuan besoko moreak izango dituzte jai egunotan. Erasotua izan denak haiengana jo ahalko du, hitz egin, babesa eta laguntza jasotzeko.

■ Erasoen zenbagailua: erasotua sentitu den edonork edo lekukoek markagailu horretan jaietan gertaturiko erasoak zenbatzen joateko.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
IT-ak egiten dira 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

10 urte espetxean, jada kalean behar zuten arren

Zigorraren hiru laurdenak 2018ko ekainetik beteak izanda Usurbilen behar zuten jada hirurek, baina 600 kilometrora urrundak dituzte Picassenteko (Valentzia) espetxean. Irteera data 2021eko ekainerako jarria diete. 10 urte bete berri dituzte kartzelan Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak. Hamarkada luze honetako hamaika bizipenen kontakizuna egin digute espetxetik lerrootan. Datorren urtarriera begira jarriak dira orain. Bien alaba Xuak 3 urte beteko ditu. Espetxetik irten eta gurasoengandik urrundu beharko du.

NOAUA! Nola gogoratzen duzue duela 10 urteko atxiloketaldia eta jasotako tratua?

Edozein atxiloketa bezala, une gogorra izan zen. Goizaldeko ordubietan etxeko atea bota eta konturatzerako lurraren kontra botata ginen, polizia belaunak lepondoan genituela. Garzon epaile ohiaren aginduz atxilotu gintuztela jakin genuen, bera ere etxean agertu zitzaigun. Madrilen, tentsio handia zen arren, ez gintuzten ukitu. Bai, ordea, Donostiatik Madrilerako bidean eta Patxi, Madrildik Iturriotzera eramatean. Kolpeak eta denetariko mehatxuak jaso genituen, heriotz mehatxuak eta senideekikoak.



Ondoko elkarrizketa eskaini diete NOAUA! eta Orioko Karkarari.

SAKABANAKETA

“Guztira ia bost urte eman genituen espetxe desberdinetan banatuta, ezin elkar ikusi”

Kartzela berean egon ahal izateko hamaika oztopo izan dituzue. Ezkondu ostean ere, banatuta izan zaituztete?

Guztira ia bost urte eman genituen espetxe desberdinetan banatuta, ezin elkar ikusi. Izaitezko bikote paperak eduki eta batera bizi ginela aski frogatua izan arren, behin eta berriro ukatzen ziguten espetxe misto batera eramane eta asteroko bisitak egin ahal izatea. Ezkondu ere horregatik egin ginen, berez gure asmoetan sartzen ez zen arren, pentsatuz ezkontza agiriarekin ez zutela heldule-

ku juridikorik izango banatuta mantentzen jarraitzeko. Alferrik. Ezkondu eta lauzpabost bisita eginda, berriro banatu gintuzten eta beste bi urte eta erdi pasako ziren ostera espetxe berean elkartzeko. Ez, ordea, espetxe administrazioaren borondatez, baizik eta Entzutegi Nazionalen enegarren helegitea aurkeztu eta epaileak bigarren edo hirugarren aldiz guri arrazoia eman ostean. Orduetik, 2014ko otsailetik, espetxe bertan egon gara, nahiz eta Xua jaio zenean hilabete eta erdiz berriro banatuta eduki gintuzten.

2014ko otsailean elkartu zintuzten Foncalenteko espetxean. Nolako bizi-baldintzak zenituzten? Okerrago emakumeentzat? Nolakoa zen zuen hartue-

mana?

Foncalenteko bizi baldintzak nahiko kaskarrak dira. Astean behin ikusten ginen 40 minutuz eta, horrez gain, hilero aurrez aurreko familiarra eta intimoa genituen, bakoitza ordubetekoa. Legeak ezartzen duen gutxieneko denbora da hori. Emakumeak 2015eko urriara arte isolamenduan bizi ginen. 1. graduan sailkatuta egonik, han sartzen gintuzten. 24 orduak espazio txiki-txikian ematen genituen. Patia oso txikia zen eta neguan, esaterako, bizpahiru hilabetez ez zen eguzkirik sartzen han.

Gizonezkoen kasuan, Valdemorotik Foncalentera iritsi eta 1. graduko moduluan izan ninduten urte eta erdiz. Baldintza gogorretan, beste moduluetan bizitzeko gatazkatsuegiak diren preso inguraturik. Oihana zen hura; zarata etengabea, liskarrak, beti adi ibili beharra... egoeraren adibide bat jartzearen, euskaldunak gorroto dituen preso batek tabako paketea oparitu zion beste bati gutako edozeini eraso egin ziezaion. Bai egin ere. Eskuz egindako labana batekin atzetik isilka joan eta bizkarrean hiru ziztada sartu zizkion kide bati. Inorentzako segurtasun baldintzarik ez zen betetzen eta azkenean modulua itxi eta profil lasaiegoko presoak sartzeko berregituratu zuten.

“Ezarritako zigorra propina galantarekin ari gara ordaintzen”

NOAUA! Usurbil eta Oriotik 700 kilometrora zineten orduan. Dispersioak zer nolako ondorioak izan zituen zuen senide eta lagunengan?

Dispersioak senide eta lagunengan duen eragina ikaragarria da edozein kideren kasuan. Denbora asko eman behar dute errepidean eta horrek arrisku handia dakar. Eta tentsioa. Bidaia egiten duenarentzat eta ba-

rruan denarentzat. Beharbada, alderdi horri ez zaio hainbeste erreparatzen, baina emozionalki kostu handia du distantzia horrek suposatzen duen guttiak. Astero-astero hutsik egin gabe izan ditugu bisitan senide nahiz lagunak eta ezingo diegu sekula behar beste eskertu. Argi eta garbi esan beharra dago sakabanaketa eta dispersioa, gure aurka baino, senide eta

lagunen kontra hartutako neurriak direla. Guri eskarmentua emateko erabiltzen dituztela. Kartzela txarrak eta txarragoak dauden arren, guretzat denetan zerua berdina da beti. Ezarritako zigorra propina galantarekin ari gara ordaintzen, sententzian jasota dagoena baino askoz gehiago. Baina senide eta lagunek? Ze erantzukizun dute gu espetxera ekarri gintuen

auzian? Ze ardura zeukan gure lagun Santik, Foncalenten bisita egitetik bueltan istripua izan eta autorik gabe geratu zenean? Jakina, bidaia luze horiek egiteko erabakia gure ingurune afektiboarena da, baina eurek aste-bururo milatik gora kilometroko joan-etorria egin behar izatea, Martutene etxe ondoan izanda, badakigu nortzuen erantzukizuna den.

“Bizitzako unerik zoriontsuena eta bereziena mingarrienetako batekin elkartu zitzaigun”

NOAUA! 2017ko urtarrilean Xua jaio zen. Une pozgarria baina baita ere une oso gogorak bizi izan zenituzten. Zurekin zen Olatz, Izarren ama Sara Majarenas. Nola bizi izan zenituen une haiek?

Xuaren jaiotzaren inguruan oso une gogorak bizitzea egokitu zitzaigun, bai. 2017ko urtarrilaren 15ean saiatu zen Izarren aita alaba hiltzen eta hori guztia Sararen ondoan bizi izan genuen. Ez dago hitzez azaltzerik une haietan sentitu eta bizi izan genuena. Agian “shock”-a da guztia hoberen definitzen duen hitza. Sinestezina baitzen dena; ez zitzaigun buruan sartzen gertatu zenik ere. Halako gauzak gure inguruan gertatzea ez da batere ohikoa eta sentimendu leherketa ikaragarria izan zen hura; mina, haserrea, ezina, tristura... Sarari laguntzea eta babesa ematea izan zen gure helburu nagusia. Lehenengo bi egunak eta gauak gurekin pasa zituen eta gero moduluz aldatu zuten. Elkar ikusteko genituen tarte txikietan ematen zigun Izarren berri. Hura gertatu eta lau egunera jaio zen Xua.



“Xua eta biok batera bizi gara amen moduluan eta Patxi gizonezkoen modulu arrunt batean dago. Astean bitan ikusten dugu elkar”.

OLATZ LASAGABASTER

“Amen moduluan bizi gara. Oinarrian, bizi baldintzei dagokionez, ez dago alde handirik modulu arruntekin”

Xua biloba ezagutu ahal izateko 600 kilometroko bidaia egin zuen zure ama Mari Karmen Anzaren gaixotasun larria bizitzea egokitu zitzaizuen baita. Dena batera egokitu zitzaizuen.

Bizitzako unerik zoriontsuena eta bereziena mingarrienetako batekin elkartu zitzaigun, bai. Aitona Joxe ere joan zitzaigun, Xua jaio eta ordu gutxira. Oso

oso gogorra izan zen dena. Zorionez, amak indarra atara zuen hura gaintzeko eta orain bilobarekin ikaragarri gozatzen ari da.

Picassenteko espetxean zarete hirurok, baina aparte era berean. Zein da une honetako egoera?

Xua eta biok batera bizi gara amen moduluan eta Patxi gizonezkoen modulu arrunt batean dago. Astean bitan ikusten dugu elkar; astearte arratsaldetan ia ordubeteko bisita intermodularra izaten dugu hirurok eta ostiral goizetan senideekin bisita. Horrez gain, elkarbizitzako aurrez aurrekoa (4 ordu) eta aurrez aurreko familiarra

(ordu eta erdi) ditugu hilero. Patxi urtebete behar du nik astebetez Xuarekin ematen dudan denbora egiteko. Gogo handiz eta ilusioz egoten gara hirurok une horien zain, baina izatez, hutsaren hurrengo da elkarrekin egoteko dugun denbora tartea.

Picassentera haurdun zinela lekuz aldatu zintuzten Olatz. Emakumeentzako espetxea omen da, baina zer nolako bizi baldintzak dituzue bertan?

Amen moduluan bizi gara lau kide gure txikiekin. Oinarrian, bizi baldintzei dagokionez, ez dago alde handirik modulu arruntekin, baina umeekin egonda zenbait gauzetan malgutasun handiagoa dago. Ziega txiki batean bizi gara, 12 metro koadro gutxi gorabehera, eta bertan ematen ditugu 15 ordu egunero. Espazio dezente dago patioan eta txikiak parketxo bat ere badute. Jardín txiki bat eta zuhaitzak eta landareak badira. Barruan, berriz, ludoteka dago hainbat jostailurekin. Umeentzat egokitutako esparrua da baina, betiere, kartzelak markatzen dituen mugen barnean.

“Egokitzapen prozesua beharko dugu hemendik ateratzean”

NOAUA! Hamar urteetan nola mantentzen da harremana lagunekin, senideekin...? Zer nolako lotura mantendu duzue zuen herriekin (Orio, Usurbil). Eta herriok zuekiko?

Lagunekin eta senideekin bisiten bidez, telefono deien bidez eta gutunen bidez mantentzen dugu harremana. Komunikazioak mugatuak dira eta interbentzioa ezartzen digute: bisitak eta deiak (bosna minutuko zortzi dei astean) grabatzen dituzte, gutunak gazte-

lerara itzuli eta iristen direnak hilabete ingurura iristen dira. Oraindik orain, komunikazio guztien interbentzioarekin jarraitzeko ematen dituzten argudioak Erakundea existitzen zeneko berdinak dira: segurtasunagatik ekidin beharra dutela espetxea eta kartzeleroei buruzko informazioa ateratzea ondoren, kaletik, haien kontra ez jotzeko. Beraz, harremanei eusteko oztopoak jartzen dizkigute etengabe, baina horien guztien gainetik jarraitzen dugu

harremanak elikatzen. Oriorekin eta Usurbilekin ere lotura mantendu dugu etxekoen eta lagun bidez, herritarrek helarazitako elkartasun mezuen eta hitzen bidez eta baita Noaua! eta Karkarari esker ere.

Kartzelaz kanpokoak ere aurrera egin du urteotan. Herria, herritarrek... aldatuz joan dira. Bertigorik ematen dizue laster zuen burua hor ikusteak?

Bai. Hamar urtean asko aldatzen dira gauzak: espazioa

bera, jendearen bizimodua, harremanak... dena. Espetxean gauden bitartean kaleko bizimodua idealizatzeraz josten dugula esango genuke eta kalean dena ez da arrosa kolorezkoa. Bestalde, presoak preso sartu zuteneko ingurunea eta aurpegiak dituen buru-bihotzetan eta oroitzapen horiekin bizi da, baina buruan dugun hura erabat aldatu da. Egokitzapen prozesua beharko dugu, zalantzarik gabe, hemendik ateratzean.

“Espetxe sistema pertsona ezeztatzeko diseinatua dago; ez da erraza”

NOAUA! Gorputza preso izan duzuen bitartean, zer egin duzue zuen ideiak aske izan daitezten?

Horixe du espetxeak, fisikoki bakarrik giltzaperatu zaitzakeela. Buruak aske jarraitzen du; ideiek, pentsamenduek, sentimenduek eta ametsek aske jarraitzen dute. Agintariek bestelako mezua zabaltzen duten arren, espetxe sistema pertsona ezeztatzeko diseinatua dago eta preso dagoenak indarra atera behar du egunero munstroari aurre egiteko. Ez da erraza. Esan bezala, espetxe sistemak presoan otzantzea, despertsonalizatzea eta alienatzea du helburu. Eta zer esanik ez euskalduna eta preso politikoa bada. Izan ere, bera makurraraztea sari politikoa bilakatzen da. Kontatu ahalko genituzke bere lanean zorrotz, baina preso eta pertsona gisa modu humanoan tratatu gaituzten hainbat kartzelerok esandakoak, aitortuz guri sistematikoki egiten zaigunak ez duela izenik. Horretan ere, ingurunearen eta kideen



“Xua Gurasoekin etxera” plataforma aurkeztu berri da egunotan.

babesa ezinbestekoak izaten dira. Baina horren guztiaren gainetik ez da ametsak eta ilusioak giltzapetuko dituen barrote edo sarrailarik.

Nola ikusten duzue egungo egoera politikoa, batik bat tesuinguruaren aldaketarekin (Aieteko agiria ondoan, ETaren desagertzearen ondoren). Presoen egoera aldatu da? Ze perspektibak ikusten dituzue etorkizun hurbilean? Kondena osotasunean (12 urtekoa) bukatu aurretik etxeratze-ko esperantzarik ba al duzue? ETak borroka armatua alde

batera utzi eta gerora desagertu zenetik zerbait argi geratu bada, zera da: Erakundea Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazkaren ondorio zela eta ez, askok saltzen jarraitu nahi duten moduan, gatazkaren jatorria bera. ETA amaitu zen baina Euskal Herriak menderatuta jarraitzen du eta askatasunerako bidean jartzeko lan handia dugu aurretik. Independentziaren aldeko gehiengo sozial sendoa artikulatzeak berebiziko garrantzia du orain, lehen urrats gisa.

Presoei dagokigunez, egoera oso pixkanaka ari da aldatzen. Dispersioa eta gainerakoak ai-

taren batean jarri zituzten mar-txan baina eskubide urraketa sorta amaigabeari amaiera emateko presarik ez zaie nabari. Egia da kide batzuk gerturatu dituztela eta gutako hainbat 1. gradutik 2. gradura pasa gaituztela berriki. Baina Soria, Villabona, Leon... urrutiegi egongo dira beti 40 minutuko bisita bat egitera joateko; nahiz Almeria edo Sevillarekin alderatuta “gertu” egon, Euskal Herrian beharko baigenuke denok aspaldi. Hauteskondeak PSOEK irabazita, ikusi beharko dugu orain arte egindako mugimenduek segida izango ote duten eta zein erritmotan.

Gure kasuan, bi urte falta zaizkigu etxera itzultzeko eta itxaropenari heltzen badiogu ere, oso-oso zaila ikusten dugu 2021eko ekaina baino lehen askatzea. Ez dugu burua horretan, zeren gu aske lagatzeko irizpide juridikoa ezarri beharko lukete irizpide politikoen gainetik eta, gaur-gaurkoz, Madrilgo eta Gasteizko gobernuak ez ditugu klabe horretan ikusten.

“Nola presta daiteke 3 urteko ume bat gurasoak hilean behin ikusteko?”

NOAUA! Hurrengo aldaketa nagusia datorren urtarrilean, Xuak 3 urte betetzen ditue-nean aurreikusten da. Igual une zailenetakoa izango da. Prestatzen ari zarete une horretarako?

Erabat prestatu ez dago. Nola presta daiteke 3 urteko ume bat gurasoak hilean behin ikusteko? Nola gurasoak alaba hilean behin ikusteko? Xua-ekin bere irteera lantzen ari gara; badaki 3 urte betetzen dituen egunean amonarekin

joango dela Usurbilera bizitzera. Garbi dugu egoera zein den baina emozionalki guztiz prestatzea ezinezkoa da oso une gogorra izango delako. Eta gure kasuan tira, alde dugu 17 hilabeteko kontua izango dela; kide askoren kasuan urte pila izaten dira. Hala ere gogorra izango da berdin-berdin.

Banaketa ekidin al daiteke lege arrunta aplikatuz gero? Baldintzapeko askatasunaren aukerarekin esaterako.

Bai, jakina. Legea aplikatuz gero, legea bere horretan, injerentzia politikorik gabe, kalean beharko genuke 2018ko ekainaz geroztik. Orduan bete genituen zigorraren 3/4ak eta legeak dio une horretatik aurrera presoak kalera atera litekeela baldintzapean. Gure kasuan baldintza guzti-guztiak betetzen ditugu askatasuna berreskuratzeko espainiar legediaren arabera: ez dugu erantzukizun zibila ordaindu beharrik, portaerari dagokio-

nez espedientea garbi dugu... kalean ez bagaude estrategia jakin baten baitako erabaki politikoen ondorioz da.

Ekitaldia jaietan

Usurbilgo jaiak tarteko azken ostiraleko euskal presoen eskubideen aldeko mobilizaziorik ez da izango. Horren ordez, larunbateko kantu-jira eta zikiro-janaren ostean, ekitaldia izango da 20:00etan, Po-txoenea ondoko Olanoeneko plazan.

'Xua gurasoekin etxera' ekartzeko herri ekimena abian

Hamabi urteko espe-
tzealdiaren hiru laur-
denak beteak dituzten
arren, Usurbildik 600 kilome-
trora Valentziako Picassenteko
espetxean dituzte preso orain-
dik Olatz Lasagabaster eta Patxi
Uranga. Igandean 10 urte bete
zituzten atxilotu zituztenetik.
Olatz eta Patxiarekin bizi da
haien alaba Xua ere. Hiru urte
beteko ditu 2020ko urtarrilean
eta espetxetik irten beharko
du. Gurasoengandik urrunduko
dute. Halakorik gerta ez dadin,
Xua eta gurasoak bereizi ez
ditzaten eta hiruren etxeratzea
gauzatzearen alde lan egingo
du joan den larunbatean, haien
Usurbilgo eta Orioko lagunek
Askatasuna plazako parkean
aurkeztu zuten "Xua Gurasoe-
kin Etxera" herri ekimenak.

"Jarri ixa handi bat zuen herrian"

Hainbat ekimen bideratuko di-
tuzte hurrengo hilabeteotan.
"Aurrerantzean, ixa erraldoi
bat egitera animatu nahi zai-
tuztegu. Xuarekin batera Olatz
eta Patxi Euskal Herrian nahi
ditugulako. Etxean nahi ditugu-
lako, Usurbilen eta Orion. Jarri
gizatasunezko ixa bat zuen bi-
zitzan, solidaritatezko ixa bat
zuen bihotzetan, justiziazko ixa
bat zuen etxean. Jarri ixa handi
bat zuen herrian", luzatzen die-
te gonbita herritarrei.

Argi gogorarazten digute,
Xuak, Olatzek eta Patxik, hi-
rurak eta elkarrekin, aske eta
etxean behar dutela jada. "12



"Xua gurasoekin etxera" plataforma aurkeztu berri da egunotan.

HERRI EKIMENA

"Isilik eta geldirik egon ezin dugulako, talde bat lanean ari gara injustizia hau salatu eta konponbidea ematea eskatzeko"

urteko zigorraren hiru laur-
denak ondo beteak dituzte
dagoeneko. Espainiako lege-
diaren arabera baldintzapeko
askatasunean beharko lukete.
Legez libre behar lukete baina
giza legerik ez duen kartzela
politika lotsagarri honen hiru
biktima gehiago dira".

Hamaika ekimen

Ekimen ugari iragarri dituzte
hurrengo hilabeteotarako: sina-
dura bilketa, mozio aurkezpe-
nak, kantu baten sorrera, postal
bidalketak, arropa salmenta...
Adi ekimen guztion sustatzai-
leek NOAUA!ra helarazi duten
ondoko irudiari. Giltza, katea...

Abiarazi duten kanpainaren
irudia izango da. Abiatzeaz di-
tugun Usurbilgo jaion zaindari
izango dugun maskotak era-
mango duena.

Usurbilgo festetako maskotak
honenbestez, keinu argia egin
eta bere egingo du "Xua gura-
soekin etxera" herri ekimena-
ren aldarria. "Aurtengo jaietako
maskotan Xuak bere lekua izan-
go du. Askatasun eza, gurasoe-
kiko maitasun lotura goxoa eta
askatasunerako giltza irudika-
tuko duena. Azken batean bere
egoera islatzen duena", azaldu
zuten "Xua gurasoekin etxera"
ekimeneko kideek.

Herrira zabalduko da
kanpaina. "Guk ekimen hone-
tan parte hartzera gonbidatzen
zaituztegu usurbildar guztioi.
Xuari denok eta bakoitzak bere
moduan lagundu diezaiokegu.
Honen erakusle dira ekimen
honi jada beren ekarpena egin
dietenak, logoa, abestia eta bi-
deo bat eginez".

"Ixa hori erraldoia izatea nahi genuke"

Maskotarenaz gain, ekimen
gehiago iragarri dituzte hu-
rrengo hilabeteotarako. Zen-
bait ekintza abiarazi dituzte
jada; esaterako sinadura bil-
keta bat. Horrekin batera,
egunotan Orioko eta Usurbil-
go etxeetan, ekimen honen
eta Xuak, Olatzek eta Patxik
bizi duten egoeraren berri
ematen duten aldizkaria bana-
natu dute.

Ixa handi batek irudika-
tuko du ekimena. "Ixa hori
da hemendik bidali diegun
elkartasun muxua. Xua Eus-
kal Herria datorrenerako, ixa
hori erraldoia izatea nahi
genuke".

Ixa handi hau irudikatzen
duten kamisetak, txapelak,
zapiak... salgai jarriko di-
tuen postua aurkituko duzue
noiznahi hurrengo hilabe-
teotan. 10 urteotan Usurbil
eta Orio zenbat aldatu diren
irudikatzen duten argazkie-
kin postalak sortu dituzte.
"Beraiei postalok bidaltzera
animatu nahi ditugu gure he-
rritarrek".

Mozioa eta kantu bat

Ekimen gehiago iragarri di-
tuzte uda osterako; mozio
bana aurkeztuko dute Usur-
bilgo nahiz Orioko Udaletan.
Eta bestetik, bi herrietako
musikariek eginiko kantu
bat.

EHZ Ekainak 28/29/30
IRISARRI
(BANE NAFARROA)

ISEO & DODOSOUND OLD SCHOOL FUNKY FAMILY DIABLO NIWI THE VERY SMALL ORCHESTRA NIZURI TAZUHERI
LU ROIS PELAN IZANI GARDENAK GARI & MALDAMBERA IBIL BEGI NIÑA COYOTE & CHICO TORRADO MONTAUK
WILLIS DRUMMOND BROKEN BROTHERS BRASS BAND RAY FERNANDEZ RODEO ASTOKILLO CIRCUS
DIHANEKO ZUHAINETAN TOI D'ABORD TRAKATUK MANU LOUIS KOBAN LIMER
LED SILHOUETTE HAURREN KONDA TALERRAK EZTABAIDAN

ehz.eus

Benidorrera bueltan



Larunbat honetan, "Halako batean bagoaz Benidorrera" antzezlan eskainiko dute Artzabalgo plazan.

Uda oporren eta atsedeenaren sinonimo bada askorentzat. Opor eta atsedendaldia duina inork mezezi badu, bereziki bizi osoan lanean jardun duen pentsiodunen kolektiboa dugu. Maletak hartuta Benidorrera itzultzekotan dugu ondoko argazkiko seikotea: Tarsi Martinez, Isi Navarro, Maitere eta Pako Alkorta,

Jone Agirrezabala eta Kattalin Arzallus. Gure Pakea Elkartek otsailean antolaturiko Jubilatutako Astearen baitan Sutegin estreinatutako zuten "Halako batean bagoaz Benidorrera!" antzezlaneko kideak dira denak. Emanaldi arrakastatsua izan zen. Ikustetik ez bazenuten, jaiotan eskainiko dute. Ez ezazue galdu bigarren aukera hau.

Oraingoan, Artzabalgo jubilatutako etxearen atariko plazan eskainiko dute antzezlan; "kalean eta mikroekin" ariko dira. Oraingo hau, osatuagoa, xehetasun gehiagorekin. Hitzordua, larunbatean (ekainak 29) 18:00etan Artzabalgoan. NOAUA!ri ohartarazi diotenez, giro euritsua balego, Sutegira lekuz aldatuko dute emanaldia.

Buruhandidun jaiak

Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa desegin zen urte hasieran. Kezka bazen zer gertatuko ote zen Usurbilgo jaietan; buruhandiek hurrei lasterraldi biziak eragiten eta erraldoien dantzaz gozatzeko segitza ahalko ote genuen. Badirudi baietz. Buruhandiak kalejiran irten-go dira bost jai egunetan, aldatetarik ez bada uztailearen 1ean eta 2an bitan gainera, eguerdi eta arratsalde partean. Aurreko urteetan ospatu izan den erraldoi topaketarik ez da izango aurten. Erraldoiak ere Santixabel egunez bakarrik irten-go dira.

Buruhandiei dagokionez bai, kalean gora eta behera ikusiko ditugu egunero. Aldatetarik ez bada, belaunaldi ezberdinetako kideak ikusiko ditugu deabru edo tximuarren karetaekin. Adi egon, edozein bazterretatik agertuko dira.

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkideza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

EKAINAK >>>>> 2, 16, 30

UZTAILAK >>>>> 14, 28

ABUZTUAK >>>>> 11, 25

IRAILAK >>>>>> 8, 22

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>>>> 1, 15, 29



Bolatokia jaietarako prestatu beharrean

Egunerokoan haur eta gurasoz bete eta giro bizia izaten duen Askatasuna plazako parkearen txokoetako batek berebiziko ikusmina erakarriko du abiatzeaz ditugun jaietan; bolatokiak ari gara. Aurtengoan, larunbatean plaza berean ospatuko den zikiro janaren aurretik, 11:00-12:00 artean antolatu dute helduentzako Santixabel Bola Txapelketa. Lehia irekia izango da. Hurbildu eta izena emanda parte hartu ahalko da. “Pro-bintzia guztia dago gonbidatua tiraldia egitera”, Pedro Lazkanok antolatzaileak NOAUA!ri adierazi dionez.

Helduentzat soilik ez, haur eta gazteei zuzenduriko txapelketa ere antolatu da, uztailearen 2an, 16:30-17:30 artean. Ikastolarekin izandako hartuemanetik dator gaztetxoenei zuzendua dagoen deialdia. Boloen kultura ezagutarazteko ikastolatik Askatasuna plazara egin ohi dituzten bisitetan, “haurrek esaten zidaten jaietan helduentzako jartzen genuela txapelketa eta haienztzat ez genuela ezer antolatzen. Horretan saiatuko nintzela esan nien”. Jada lau bat urte badira gaztetxoek artean ere boloen kultura zabaltzen



Pedro Lazkanok bola jokoari buruzko azalpenak eskaini dizkigu.

UZTAILAREN 2AN

“Heldu, haur nahiz gazteei zuzenduriko bola txapelketa antolatu da, uztailearen 2an, 16:30-17:30 artean”

dabiltzala jaietan. “Gustura etortzen dira”, adierazi digu Lazkanok. Baita ikastolatik egin ohi dituzten bisitaldietan ere. “Bolatokia prestatzen diet, zer egin azaldu. Bi bola neurri ekartzen ditugu, bat ofiziala, handia eta bestea txikia, haurrentzat. Hortik aurrera haiek moldatzen dira”.

Egun boloetarako ohitura bizirik ote den galdetu diogu, tradizio luzea duten bolatokiak bizirik eusten ote dieten beste

lekuetan. Gipuzkoako panorama marraztu digu Lazkanok. “Bultzadarik handiena Villabonak eta Zarautzek eman diote. Gazte jendea gehiago Goierri aldean dabil”. Halere esan digunez, “guk nahi adina” jende ez dabil. Eremita gehiagotan gertatzen ari den moduan, “bolari zaharrek hori ari da gertatzen, zahartzen ari gara. Gazte gutxi dator bultzaka atzetik”. Halere, belaunaldi berriak federazioa arnasberritu duela adierazi digu baikor. Ikastolekin hartueman dute, boloen kulturaren transmisiorako eremu giltzarria. “Guretzat pozgarria da deitzen diguten bakoitzean. Jubilatua nago, Goierri aldean ere jubilatua daudenak ibiltzen dira

ikastoletako haurrekin, gazteek lanera joan behar izaten dutelako”.

Garai bateko bolatoki zaharrek edo Usurbilgo kasuan bezala, azken hamarkadotan eraiki dituztenekin batera, bolatoki mugikorak ere baliatzen dituzte txapelketetarako.

Bolari familiako kidea

Boloen mundua oso hurbi-letik bizi izan du txikitatik, Pedro Lazkanok. Etxetik ikusi eta ikasia, aita aritzen zen boloetan. “Jaietan berarekin joaten ginen. Hortik hasi ginen”, Pedrok eman dio segida gero, eta orain bere semeek. Txapela eta garaikur mordoa irabazitakoa da Lazkanok. “Aurten ere bikoteka aita semeak irabazi dugu. Gipuzkoan lau aldiz txapeldun geratua. Jaietan, Usurbilen ere bitan irabazitakoa naiz”.

Zaletasuna odolean darama. Pentsa, “urtean 60-70 bat saioetan ibiltzen gara, batzuetan gehixeago besteetan gutxiago”. Uda parte honetan, jaien denboraldian izan ohi dituzte hitzordu gehien. Lauz-pabost saio izaten dituzte asteburu berean, leku ezberdinetan. “Jendea banatu egiten da eta parte hartzea apur bat murrizten da”.

Hesi baten beharra

14 bat urte daramatza Pedrok mimo handiz eta gogotsu Askatasuna plazako bolatokia zaindu eta bizirik mantentzen. Noiznahi ikusiko duzue bolatoki ingurua txukundu eta zaintze lanetan. Guneak badu zer hobetua, Pedrok NOAUA!ri adierazi dionez. “Gauza asko aldatuko nituzke, baina behar beharrezkoak; bazterreko ohol asko askatuak daude. Lurra harrotzen ari da”, deskribatu digu Pedrok. Baina bolatokiaren egoerari dagokionean, gehien kezkatzen duena

txapelketak ospatzen diren unean ezbeharren bat izateko arriskua da. Txapelketa denean haurrak bolatoki barrura korrika heltzen dira konturatu gabe. Orain arte ezbehar larririk gertatu ez den arren, “hiru bat ezusteko handi izan ditugu. Haurra airean altxa beharra eta justu libratutakorik bada”.

Kontuan izan, bolak zortzi bat kilo pasatxo ditu. Botatzaileak “ematen dion indarrekin eta bueltak datorrenean haur bati bi hankak minduko

lizkioke. Pentsatu helduok ere zartako ederrak hartutakoak gara, tartean neronek”. Argi dio, “festetara etorri eta helduren batek min hartzea pena handia hartuko nuke. Haur bati gertatuta, bizi osorako pena hartuko nuke”.

“Orain arte ez dugu okerrik izan”

Lazkanoren esanetan hesi bat jartzeak konpondu dezake egoera. Bolatokian “buelta osoan behar luke sarrera irteerekin, boloetan aritzera sartu behar duenarentzat eta

botatzaileak saioa bukatzean ateratzeko”. Modu honetan, korrika datorren haurra bertara sartzea eragotziko luke hesiak. “Orain arte ez dugu okerrik izan eta ez nuke nahi izatea”. Udalarri eskaera egin dio aspaldi, erantzunaren zain da. “Idatziz agindua dago 2018an egingo zutela. 2019an aurrera goaz eta egiteke dago”. Argi dio, hesi kaxkar batek ere “segurtasun handia emango luke”. Jaiotarako ere eskatua du, “besterik ez bada behin behineko bat jartzeko”.

Santixabel jaiak, egunez egun

Ekainak 27, osteguna

■ 17:30 Pala Txapelketa. Kirol egokituen erakustaldia, emakumezkoen finala eta gizonezkoen finala.

■ 18:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera Mikel Laboa plazatik.

Ekainak 28, ostirala

■ 11:00 Multikirol festa.

■ 14:00 Gazte Eguna: gazte bazkaria txosnetan.

■ Bazkalostean, Andoni bakarlarria.

■ 15:30 Haur, gazte eta helduentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan banatuko da). Ondoren, pintura lehiaketako sari-banaketa.

■ 18:00 Elektrotxufla Elektrotxarangarekin kalejira udaletxera.

■ 19:00 Txupinazoa eta ikurriñaren igoera udaletxetik: Estitxu Berasategi eta Esther Arrojeria eskubaloi jokalarien eskutik.

■ 19:00 Gazte ekimena eta txupinazoa txosnetan eta Elektrotxufla elektrotxaranga segidan. Ondoren, Arraiketai txarangarekin kalejira. Ondoren, buruhandiak.

■ Jarraian, herriko dantzarien emanaldia frontoian.

■ 23:00 Berbena: Larrian Gozo frontoian.

■ 00:30 Kontzertuak txosnetan: NAO, Willis Drummond eta DJ Seymar.

Ekainak 29, larunbata

■ 10:00 Ume-gazteei harrera udaletxeko plazan. Zatoz koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren eguneko abestia dantzatzera!

■ Umeen eguneko erronkak eta jolasak.

-10:30-12:30 Ginkana (LH1-LH4koentzat).

-10:30-12:30 Gaztetxoentzako erronka(LH5-DBH2koentzat).

-10:30-12:30 Puzgarriak frontoian 0-5 urte artekoentzat.

■ 11:00-12:00 Helduentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia Askatasuna plazako bolatokian.

■ 12:00 Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira



Ostiral honetan arratsaldeko 19:00etan piztuko dute txupinazoa txosnetan eta Elektrotxufla elektrotxaranga abiatuko da. Ondoren Arraiketai txarangarekin kalejira.

Kuxkuxtu txarangak lagunduta.

■ 14:00 Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko zikiro-jana Askatasuna plazan.

■ 16:30 Gaztelekuaren eskutik, ur eta zikin jolasak DBHI-ekoentzat Artzabalen.

■ 18:00 Buruhandiak.

■ 18:00 "Goazen Benidorrera" antzezlanak Artzabalen.

■ 18:30 Sokamuturra, ikastola aurreko belardian. Eguraldi txarabada, Ikastolako patio borobilean.

■ 18:30 Ray Fernandez kubatarren kontzertua txosnetan.

■ 19:00 Zero Sette Jaiband Artzabalen.

■ 20:00 Euskal presoaren eskubideen aldeko ekitaldia Olanoeneko plazan, Potxoenea ondoan.

■ 23:00 Kontzertuak frontoian: Zaparra eta E.T.S.

■ 00:00 Batukada feminista txosnetan.

■ 02:30 Txosnetan: Skasti eta DJ Jotatxo.

Ekainak 30, igandea

■ 06:00 Enzefalogramo Elektrotxaranga. Ondoren, gaupaseroen argazkia.

■ 09:00 Esnadeia dultzaineroekin.

■ 11:30 Urpekaritza Kiroldegian.

■ 11:30 Azpeitiko zanzantzarrak.

■ 12:30 Herri-kirolak: Gipuzkoako 2. mailako Aizkora Txapelketa 2019.

■ 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxegan.

■ 18:00 Buruhandiak.

■ 18:00 Patata tortilla lehiaketa txosnetan.

■ 18:30 Arraiketai Txaranga.

■ 18:30 Herri-kirolak:

-Gipuzkoako lasto altzaratze txapelketa.

-Gipuzkoako ingude txapelketa.

-Idi dema.

■ 23:00 Natali taldea frontoian.

■ 00:30 Ezetaerre eta Dj Bull txosnetan.

Uztailak 1, astelehena

■ 06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.

■ 10:00 Ume-gazteei harrera frontoian. Zatoz, koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren eguneko abestia dantzatzera!

■ Egunean zehar, Txu Txu trenak.

■ 10:00-13:00 Jolas Parkea frontoian (6-12 urte bitartekoentzat).

■ 10:00-13:00 Jolas parkea frontoian (6 urte artekoentzat).

■ 11:00-13:00 Helduentzako Toka Txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.

■ 12:30 Buruhandiak.

■ 13:30 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian, norberak etarrita.

■ 14:00 Oilasko-biltzaileen itzuleta eta bazkaria.

■ Ondoren, oilasko-biltzaileen jolasak.

■ 14:30 Tor Magoa frontoian.

■ 16:00 Apar festa Askatasuna plazan.

■ 17:30 Txokolatea frontoian.

■ 18:00 Buruhandiak.

■ 18:30 Arraiketai Txaranga.

■ 19:00 Puro Relajo rantxerak Artzabalen.

■ 22:30 Bertsolariak frontoian: Aitor Mendiluze, Julio Soto, Miren Artetxe, Oihana Bartra.

■ Jarraian, 43. Santixabeletako Bertsopaper lehiaketako sariak.

■ 00:30 Bertsio gaua txosnetan.

Uztailak 2, asteartea

■ 09:00 Esnadeia txistulariekin.

■ 11:00 Xakea.

■ 12:00 Soka-dantza udaletxe aurrean.

■ Jarraian, lore eta salda banaketa.

■ 12:30 Trikitilarien kalejira.

■ 12:30 Buruhandi eta erraldoiak dultzaineroekin.

■ 12:30 Incansables txaranga.

■ 16:00 Mus txapelketa txosnetan, izen ematea 15:30-16:00 artean.

■ 16:30-17:30 Haur eta gazteen-tzako Santixabel Bola Txapelketa, Askatasuna plazako bolatokian.

■ 17:30 Gizonezkoen Esku Pilota Txapelketako finalak.

■ 18:00 Buruhandi eta erraldoiak dultzaineroekin.

■ 18:00 Gaztetxoentzako "a un toke" txapelketa txosnetan.

■ 18:30 Erromeria Artzabalen, Estangarekin.

■ 18:30 Incansables txaranga.

■ 19:00 Paella jana txosnetan.

■ 23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.

■ 00:00 Desegin taldea txosnetan.

■ Ondoren, karaokea!

OSASUN GIDA 2019



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente parea doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Irati Ibargoien FISIOTERAPIA - OSASUNA

ZERBITZU
BERRIA

PSIKOLOGIA

·Terapia indibidualak
·Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

·Indibiduala
·Taldetokoa

BESTE TERAPIA MOTAK

·Presoterapia



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ezk. USURBIL

FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak

Lesioak: traumatologikoak, posturalak,
kirolekoak, ATM disfuntzioak, zoru pelbikoa...

Teknikak:

- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM (fibrolisis instrumental miofascial)

ZERBITZU
BERRIA

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS. 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Lizarralde ORTOPEDIA

Kazkazuri 1 baxua, Oiarzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

- ✓ Produktu ortopedikoen
alokairu zerbitzua
(oheak, aulkia, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta
espezializatua

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Aholkularitza

👜 Produktu gama zabala

Kima

MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirindulariaren azterketa
biomekaniko eta osteopatikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

zuzendaria osasun
oinetatik

943 11 09 54 zubiaurrenea 2





San Joan jaietako argazki gehiago noaueus atarian. Kalezartarrek eskerrak eman nahi dizkiete jaien antolatzaileei.

Estanpazioaren magia deskubritzeko aukera

USOA ZUMETAK UMEENTZAKO TAILER BAT ESKAINIKO DU UZTAILAREN 13AN

Harria Hitz bisita gidatua egiteko aukera berri bat izango da uztailaren 13an. Izena ematen dutenek TxTxTx Txokoaldeko Txalaparta Txokoa eta Zumeta Arte Estudioa barrutik ezagutu ahal izango dute. “Horrez gain, arratsaldean Usoa Zumetarekin batera familientzat serigrafia tailerra prestatu dugu”, ibilbidearen sustatzaileek aditzera eman digutenez. “Sei urtetik aurrerako haurrek dituzuenok familian arratsalde pasa berezia egin ahal izango duzue. Serigrafia teknika ikasi eta Usoarekin batera norberak bere kamiseta estanpatzeko aukera izango duzue”.

NOAUA! Uztailaren 13ko bisita gidatua Zumeta Arte Estudioa hurbilduko da. Ez da lehen aldia, ezta?

Usoa Zumeta: Harria Hitz ibilaldia osatzen dutenek Txokoaldeko Txalaparta Txokoa edota Zumeta Arte Estudioa bisitatu ohi dute. Batzuetan biak bisitatzeko dituzte egun berean.

Uztailaren 13an halaxe egingo da. Izena ematen duenak bi txokoak ezagutzeko aukera izango du. Zuen kasuan, zertan datza bisita?

Estudioko hiru espazioak erakusten ditugu. Serigrafia tailerra, pintura tailerra eta



Harria Hitz bisita gidatuaren baitan, haurrentzako serigrafia tailer bat eskainiko du Usoa Zumetak. Uztailaren 13an, Zumeta Arte Estudioan bertan. Adi, gehienez ere 20 lagunentzako ikastaroa izango da-eta.

USOA ZUMETA

“Umeei zuzendua dago tailerra.

Ariketa txiki bat izango da, ordubete edo ordu t`erdikoa. Kamiseta batzuk egingo ditugu”

erakusketa gela. Oraingo honetan, tailertxo bat ere eskainiko dugu.

Bisita goiz partean egingo da. Tailerra arratsalde partean eskainiko duzu eta umei zuzendua egongo da, ezta?

Horrela planteatu dugu, bai. Harria Hitz bisita gidatua sustatzen dutenen ideia izan zen. Donostiako San Telmo museoan eta Bilboko FIG azokan eskaini izan ditut antzeko tailerrak. Aspalditik dabilta horren atzetik eta uztailaren 13an lehen aldiz egingo dugu gure

estudioan.

Umeek gurasoekin batera hurbildu behar dute.

Berez umei zuzendua dago. Ariketa txiki bat izango da, ordubete edo ordu t`erdikoa. Kamiseta batzuk egingo ditugu.

Tailerrera animatzen denak, zer eraman behar du?

Kotoizko kamiseta argi bat.

Bakoitzak bere margoa inprimatuko du ala irudi bera baliatuko dute denek?

Bietara egin izan dut. Erabakitzeko dago oraindik baina seguruenik nahikoa librea izango dela. Eredu bat emango dut baina hortik aurrera nahi duenak bere sormena garatu ahal izango du.

Egia esan, gustuko dut irudi berdina erabiltzea eta ondoren estanpazio denak numeratzea; ikusteko zer den obra grafiko bat. Tailerrean 17 kamiseta egiten baditugu, bakoitza numeratu eta sinatu egingo dugu.

Eta bide batez, estanpazioa zertan datzan ikasiko dute.

Estanpazioaren magia deskubritzeko aukera izango dute. Oso era sinplean. Emaitza oso ikusgarria da hala ere, eta bakoitza bere kamisetarekin joango da poz-pezik etxera.

Uztailaren 13an, goiz partean Harria Hitz bisita gidatua eta arratsalde partean serigrafia tailerra Zumeta Estudioan

Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian jokatutako papera ezagutaraztea du helburu Harria Hitz ibilbideak. Herrian ditugun artelanak baliatzen dira horretarako.

Uztailak 13 larunbata

- 10:00 Irteera frontoitik.
- 10:05 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean.
- 11:15 TXXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita.
- 12:35 Zumeta Arte Estudioa bisita.

■ 16:00 Familientzat serigrafia tailerra (6 urtetik aurrerako haurrentzat) Zumeta Arte Estudioan.

■ Tailerrerako materiala: Kotoizko kamiseta argia.

■ Hizkuntza: Azalpenak euskaraz emango dira.

■ Izen-ematea: Bisita doakoa izango da. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez goizeko bisitetarako/ 20 lagun serigrafia tailerrerako).

■ Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 / info@kultour.pro

Jaietan ere izerditan blai

Lehia biziko hitzorduak izango ditugu abiatzear ditugun jaiotan.

Herri kirolen igandea

Herri kirolen plaza izango dugu Usurbilgoa igandean. Tradizioari hutsik egin gabe, txapelketa ezberdinen lekuko izango ditugu jaiok ere. Igande goizez, Gipuzkoako 2. mailako Aizkora Txapelketa ospatuko da 12:30etan hasita. Arratsalde partean, herrialde mailako beste bi txapelketa; 18:30ean, Gipuzkoako lasto-altxatze eta ingude-txapelketak. Idi-dema iragarri dute segidan.

Festen abiapuntua, kirolaz blai

Jaien atariko kirol hitzorduek osatuko dute. Azken asteotan jokoan izan den emakumezko zein gizonezkoen pala txapelketako finalak ospatuko dira, kirol egokituen erakustaldiaren ostean. Ostegun arratsaldeko 17:30etan hasita frontoian. Tarte horretan gaztetxoentzako beste hitzordua; haurrentzako BTT bizikleta-irteera herritik barrena. 18:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik.

Multikirol festa

Ostiral gau giroa bizitu du



Helduen bola txapelketa ekainaren 29an egingo da eguerdiko 11:00etan, haurrena uztailaren 1ean arratseko 16:30ean, Askatasuna plazako bolatokian.

frontoian asteotan Azarrika gazte mugimenduak antolatuturiko Multikirol txapelketak. Giro ezin ederragoan aritu dira ekimenean izena eman duten gazteak eskubaloian, futbolearen eta hockeyan. Jaietara hedatu dute ekimena; multikirol festa antolatu dute ekainaren 28rako 11:00etan txosnetan. Gazte egitarauko lehen hitzordua izango da.

Urpekaritza saioa Kiroldegian

Jaien zurrumbilotik pixka bat aldendu eta freskatzeko hitzordu ezin aproposagoa. Igande goizean, urte luzez ospatzen den urpekaritza saioa

antolatu dute Oiardo Kiroldegian. Ekainaren 30ean, goizeko 11:30ean. Igerileku eraberrituan!

Bola txapelketak

Helduena ekainaren 29an 11:00etan, haurrena uztailaren 1ean 16:30ean. Askatasuna plazako bolatokian noski. Izena unean bertan emanda parte hartu ahalko da.

Eskupilotako finalak

Palarenarekin batera, Usurbilgo Pilota Txapelketa jokatu da asteotan. Amaierara heldu da; finalak uztailaren 2an 17:30ean.

Igerilekua berriz zabalik

Doikuntza lan batzuk egiteko ostegunean itxi zuten Oiardo Kiroldegiko igerileku berritua zabaldu zuten berriz larunbatean.

“Ostegunean igerilekuko instalakuntzan izan ziren ar-

zoak konpondu ditugu”, zioen ostiralean sare sozialen bidez Usurbilgo Udalak. Larunbat goizean ireki zuten berriz, “betiko ordutegian eta ikastaroak ohi bezala eskainiko dira”.

130etik lagun Uxue

Trail lasterketan

Uztailaren 6an goizeko 9:00etan abiatuko da lasterketa frontoitik. Bi proba aukeran; motza, 11 km (15 euro); luzea, 20 km (20 euro). Izen ematea: kronoak.com, uztailaren 5eko gaueko 22:00ak baino lehen.

34. Donostiako

Triatloia, Usurbildik barrena

Igandean (ekainak 30) Atletico San Sebastianek antolatuturiko Onditx Oroituz Donostiako 34. Triatloi proba ospatuko da Donostian, goizeko 9:15ean hasita. Igerian, korrika eta txirrindu gaineko probak osatu beharko dituzte parte hartzaileek. 38,5 kilometroko txirrindularien lehiak Txikiertitik N-634 errepedetik barrena Usurbil eta Aginaga zeharkatuko ditu, Oriotik Igeldora igo eta hiriburura itzuli aurretik. Informazio gehiago: triatlonatleticoss.com

Emakumezkoen

Donostiako Klasikoa ere Usurbildik

igaroko da

Emakumezkoek Donostiako Klasikoan parte hartu ahal izango dute lehen aldiz. Abuztuaren 3ko lasterketa beraz, aitzindaria izango da. Emakumezkoen proba 14.30ak aldera bukatuko da; gizonezkoena beranduago abiatu eta beranduago bukatuko da, 17.30ak aldera.

Lehen edizioan, 127 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute emakume txirrindulariek. Tarteko bi sprint egongo dira eta horietako bat Usurbilen ipiniko dute. 105. kilometroan, zehatz esanda. Mendizorroztzeko gaina igaro eta gero pasako dira Usurbildik.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



· bazkariak EGUNERO
· afariak ostegunetik larunbatera

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

Garazi Artola: “Nik mendiaz disfrutatu egiten dut eta horrek asko laguntzen dit”

Mendian ibiltzea oso gustuko du Garazi Artola usurbildarrak. Unibertsitateko kontuak ahaztu eta bere espazio propioaren bila korrika hasi bazen ere, hainbat mendi lasterketa irabazi ditu azken hilabeteotan. Berarekin izan da NOAUA! Euskal Herria Mendi Erronka eta beste hainbat garaipen eta konturi buruz hitz egiteko.

NOAUA! Leitzan ospatu zen Euskal Herriko Mendi Erronkan binakako lasterketa irabazi zenuen Ibai Madinarekin batera. Nola prestatzen da 67 kilometro luze den lasterketa?

Garazi Artola. Nik lasterketa hura ez nuen prestatu, ez nekien egin beharko nuenik ere. Horren lasterketa luzea egiteko ez nengoen prest, inoiz ez ditut egin 34km, ordura arte ez behintzat. Ezta entrenatzean ere. Larunbatean zen lasterketa eta ostegunean idatzi zidaten galdetzeko ea mesedez parte har nezakeen bikotekakoan. Beste inor aurkitu ezean egingo nuela esan nien azkenean. 20-25km egiteko prest nengoen, baina 10 km gehiago asko da. Egingo nuela esan nien, baina presiorik gabe. Berez DYArekin zerbitzua egitera joan beharra neukan bertara eta aitari esan nion korrika aterako nintzela eta ordezko bat bilatu zuen behala.

Beste hainbat lasterketa ere irabazi dituzu azken aldian.



Euskal Herria Mendi Erronka eta beste hainbat konturi buruz aritu gara hizketan Garazi Artolarekin.

GARAZI ARTOLA

“Nik mendi lasterketa herrikoietan ematen dut izena.

Azkenengoz Irurritako mendi duatloian izan nintzen, erreleboka orduan ere, Aritz Pagola aginagarrarekin batera”

Nik mendi lasterketa herrikoietan ematen dut izena. Azkenengoz Irurritako mendi duatloian izan nintzen, erreleboka orduan ere, Aritz Pagola aginagarrarekin batera. Aurreko urtean halako lehiaketa batean izan ginenean eta aurten ere parte hartzea erabaki genuen. Lehenengo egin genuen bikote mistoen kategorian. Orioko mendi lasterketa laburrean izan nintzen duela lau aste eta bigarren egin nuen. Nafarroa Xtrem 21 kilometroko lasterketan lehenengo egin nuen; ordura

arte jarritako marka hautsien. Azken aldian horiexek egin ditudanak.

Lasterketa luzeetan ez du lan fisikoak bakarrik kontatzen, mentalki ere prestatu behar dela diote. Nola lantzen da aspektu hori?

Azken aldian konturatu naiz lasterketa disfrutatzen ari naizenean, presiorik gabe, denbora kontuan izan gabe askoz hobe eramaten ditut lasterketak. Lehenengo bosten artean zabiltzanean eta jendeak animatzen zaituenean ilusioz hartzen da. Lasterketa luzeagoetan buruak izugarritzko garrantzia du. Nik mendiaz disfrutatu egiten dut eta, horrek asko laguntzen dit.

“Deskantsua tokatzen zait” Deskantsua ere garrantzitsua dela diote horrelako kiroltarietan. Lesio asko izaten dituzu

edo masajistarekin ordu asko eman beharra?

Kirol guztietan bezala denboraldiak daude. Lasterketak asteburuetan izaten dira; orduan, igandean tokatzen denean astelehena deskantsatzeko hartzen dut eta zenbait kasutan astearte ere bai, kilometro kopuruaren arabera. Batzuek deskantsu aktiboa egiten dute: bizikleta pixka bat, korrika apur bat... Nik esango nuke deskantsua entrenatzea baino garrantzitsuagoa dela. Nik neure buruan ikusi dut deskantsatu dudanean hobeto nagoela. Azken asteburuetan lasterketa asko izan ditut eta deskantsua tokatzen zait.

NOAUA! Babesleak ere badi-tuzu. Horiak ematen dutenarekin kirolari batek nahikoa izan dezake bizitzeko?

Garazi Artola. Babesleek ez digute ezer ordaintzen. Babesleetako baten kasuan, mendiko arropa eta materiala saltzen duen kate bat da eta merke-merke uzten digute. Guk beraien kamisetak jantzita egiten ditugu lasterketak eta argazki batzuk ateratzen ditugu sare sozialetan partekatzeko. Beste babesle bat lortu berri dut; zapatilak egiten dituzte batez ere. Haiek zapatilak bidaltzen dizkirate, arropa pixka bat ere bai. Ez didate dirua modu fisikoan ematen, nolabait esateko, baina gastuak aurrezteko moduak dira.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

“Zaintzen egotea ere gustatzen zait. Ilusioa egiten dit DYArekin egoteak”

NOAUA! Azken urteetan mendiko lasterketetan aritu zara. Nola sortu zitzaizun diziplina horretan hasteko gogoak?

Garazi Artola. Nire gurasoak ez dira bada oso mendizaleak [kar kar kar]. Txikitan gutxi joana naiz mendira, asko jota Erniora edo gurasoekin. Korrika unibertsitatean hasi nintzen, ikasketetatik urrundu eta nire espazio propioa izateko. Arrasatetik Eskoriatzara joan eta itzuli. Erasmusera joan nintzeanean pixka bat alde batera utzi behar izan nuen, Alemaniako neguak hotzak baitira. Uda partean, eguraldi onarekin hartu nuen atzera eta itzultzean errepide eta kaleetako korrika txapelketetan hasi nintzen. Urtebete eman nuen horrela eta jada graduako azken urteetan mendian hasi nintzen; hori bai, oinez. Orduan mendia eta korrika egiteko zaletasunak bat egitea pentsatu nuen, due-la urte eta erdi edo.



“Korrika unibertsitatean hasi nintzen”, aditzera eman digunez.

GARAZI ARTOLA

“Mendiak ematen dit aukera egunerokoaz ahazteko. Sufritzen disfrutatze hori asko gustatzen zait. Behin gora heltzean inguruetakoa bistak ikusteak ederra da”

“Niri lokatza gustatzen zait”

Zer eman dizu mendiak beste kirolek eman ez dizutena?

Mendiak ematen dit aukera egunerokoaz ahazteko, arazoak direla, lana dela. Sufritzen disfrutatze hori asko gustatzen zait eta behin goraino heltzean inguruetakoa bistak

ikuste hori ederra da. Errepidean edo kalean ibiltze horrek ez ditu horrelako aukerak ematen. Gainera niri lokatza gustatzen zait. Desberdina da.

DYAn aritu dira zure aita eta anaia eta zu ere ikusi zaitugubertan. Lehen bailaren bestaldetik ikusita larrialdi zerbitzuen lana, nola ikusten duzu orain barrutik?

Askotan pentsatu izan dut eguraldi txarrarekin mendian galduta gure zain egon behar duten horiek ikusita: ez dakit zer nahiago dudan korrika aritu edo hemen egon zain zauriturik baldin badago. Alderantziz denean, zerbitzua dagokidanean berdina pentsatzen dut, baina alderantziz [kar kar kar]. Desberdina da. Zaintzen egotea ere gustatzen zait, larunbatean aitarekin joango naiz Zaldibiara zerbitzura. Ilusioa egiten dit DYArekin egoteak.

“Pixkanaka pixkanaka, geroz eta neska gehiago gara”

NOAUA! Pil-pilean dago honako gaia: kirolean ez da berdintasunik. Nola ikusten duzu gai hau zure diziplinan?

Garazi Artola. Orain arte egin ditudan lasterketa guztietan ez dut inolako arazorik izan. Bai entzun izan dut Espainiako lasterketaren batean mutilei eta neskei ematen zaizkien sariak oso ezberdinak direla. Euskal

Herrian guztiontzat berdin dira sariak. Egia da korrikalari nesken kopurua askoz murriztagoa dela. Hala ere ikusten dut nola pixkanaka pixkanaka geroz eta neska gehiago garelako.

Badaude mutilak kexu izaten direnak lasterketetan nesko gehiago animatzen digutelako [kar kar kar].

Zeintzuk dira zure erronkak datozen lasterketetarako?

Orain arte pentsatu izan dut nire adinarekin lasterketa laburretan arituko nintzela, geroza edukiko nuela denbora luzeagoetan parte hartzeko. Pixkanaka ez dakit nola etorri diren lasterketa luzeago hauek eta gehiago disfrutatzen dudala konturatu naiz

bai paisaiatz, bai bestelako gauza txikiez ere. Mantsoago joaten gara eta asko gustatzen hasi zaizkit. Orain arte nire erronkak maratoni erdiak ziren, baina orain agian luzatzen hasiko naiz. Ez dakit, ikusi beharko da. Denbora behar da entrenatzeko ere eta lanarekin ez dakit nola ibiliko naizen.



SALEROSKETA & ALOKAIURAK

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!

EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIK!



ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Usurbilgo neska baten bila gabilta orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Intere-



Zorionak! Handitzen, handitzen, hasi naiz handitzen... Etxeko txikia handitzen doa. Ekainaren 27an 4 urte beteko dituzu!! Oso zorionsu egiten gaituzu... Etxeko bihurritxo, maite zaitugu!



Zorionak Beñat eta Eneko! Muxu handi bana etxekoen partez.



Zorionak Maddi eta Axel! Iritsi da hainbeste espero zenuten eguna, Santixabelekin batera ospatuko deguna! Muxu handi bana!



Zorionak polita! Gure etxeko txikiak 2 urte dagoeneko! Jarraitu gure egunak alaitzen. Asko maite zaitugu!! Ama, aita eta Iraia.

Heriotzak

Amaia Iturria Aguilera

66 urterekin hil zen ekainaren 19an, Zubietan.



OHARRA: 2019ko uztailaren 5ean aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: uztailaren 1a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

satuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretxian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: goputzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaile behar dira Aratz erretxian, info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar eta haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzateke. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten.

Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko.

Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldean. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz.

Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Seguitan lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

BESTELAKOAK

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korroos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 27 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 29 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 30 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 01 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 02 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 03 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ekainak 27 - Uztailak 07

Osteguna 04 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 06 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

28 ostirala

- Zirriborro tailerreko ikasleen pintura eta eskulan erakusketaren irekiera. Sutegin. Orduetgia: 11:00-13:00/18:00-20:00.
- Santixabel jaiak. Ikus 12. orrialdea.

29 larunbata

- Santixabel jaiak. Ikus 12. orrialdea.

30 igandea

- Santixabel jaiak. Ikus 12. orrialdea.
- 34. Donostiako Triatloia. 9:15ean Donostiatik abiatuko da. Probak N634 errepidea zeharkatuko du Txikiertik Aginagarako norabidean.

Estitxu Berasategik eta Esther Arrojeriak piztuko dute suzeria

Estitxu Berasategi eta Esther Arrojeria Bera Bera taldeko jokalariek usurbildarrek emango diete hasiera aurtengo Santixabel festei.

Ekainak 28 ostirala

- 19:00 Txupinazoa eta ikurriñaren igoeira udaletxetik: Estitxu Berasategi eta Esther Arrojeria eskubaloijokalariek eskutik.



Txupinazoa eta gero lehertuko da festa udaletxeko plazan.

eMe taldearekin abiatuko da Laboaren uztaila kontzertu sorta

Bueltan datorkigu sortzaile handiaren omenez uda partean ospatu ohi den zikloa. Uztaileko ostegun gauak, Mikel Laboari eskainitakoak izango ditugu 2019. urte honetan ere. Musika talde zein bakarlariek emanaldiez gozatzeko aukera izango dugu bere omenezko plazan.

“Laboaren uztaila”

Uztailak 4, osteguna
eMe, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Uztailak 11, osteguna
Satelitik, 22:00etan Mikel Laboa plazan.



Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Uztailak 18, osteguna
Pelax, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Uztailak 25, osteguna
MICE, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Datozenak



Aitor Mendiluze, Oihana Bartra, Miren Artetxe eta Julio Sotoren bertso saioa

Uztailak 1 astelehena

- 22:30 Bertsolariak frontoian: Aitor Mendiluze, Julio Soto, Miren Artetxe (argazkian), Oihana Bartra.
- Jarraian, 43. Santixabeletako Bertso-paper lehiaketako sariak.

Prezio bereziak jaietako ferriagunean

Anbulatorio ondoko aparkalekuan ipiniko dute jaietako ferriagunea. Prezio bereziak iragarri dituzte bi egunetarako; uztailaren 1eko Umeen Egunerako eta uztailaren 3rako.



Barrakak ambulatorio ondoan topatuko dituzue.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66


BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

USURBIL HOMES

Ikuspegi onenak dituen ingurune natural batean bizi



Terraza zabalak



Sukalde hornituak



**Pack Domotikoa
eskuragarri**

Bisita gaitzazu Lasarten: **Hipodromo Etorbidea, 10**

900 11 00 22 • **neinorhomes.com**

Beherapenak umeeekin?

UZTAILAREN
1etik-13ra



Urbil-en DOAKO umezain
zerbitzua duzu zure
erosketez gozatzeko.

 Kids Zone gunea
1. solairuan

Astelehenetik ostiralera

17:00etatik 20:00etara

Larunbatetan

12:00etatik 20:00etara



Benetako
UNEAK

urbil.es